

A221. NORMALIZAZIOA (EUSKERA)

BIGARREN ARIKETA
Denbora, gehienez: 120 minutu.

Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz orri honetako jarraibideak.

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Aretoan erlojurik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urдина edo beltza). Ezin da erabili kolorezko errotuladorerik; bai, ordea, TIPEX® edo antzekorik.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- **Idatz ezazu GAKOA** erabiltzen dituzun **erantzun-orrietan**. EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia baita. Orriaren bi aldeak erabili. Orriei jarri zenbakiak, ez orrialdeei.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Erantzun labur eta zehatzak eman behar dira. Aldez aurretik zehaztuta daude zuzenketa-irizpideak. Galdera bakoitzaren gehieneko balorazioa enuntziatuan bertan adierazten da.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua erantzun-orriak har diezazkizuten. Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.
- Ez ahaztu erantzun-orri guztietan adieraztea:
 - **LEP kodea (A221)**
 - **Identifikazio-gakoa**
 - **Orri-zenbakia** / erabilitako orriak, **guztira**
- Bi galdereei bai euskaraz, bai gaztelaniaz erantzutea aukeran dago

Eskerrik asko zure laguntzagatik

Aurkezpena

Dentro de las funciones específicas designadas al puesto de TM Normalización Lingüística objeto de esta convocatoria se encuentran entre otras las de desarrollar el Plan de Normalización del uso del Euskera, elaborar procesos de dinamización lingüística, elaborar pliegos de condiciones técnicas y desarrollar acciones de normalización del uso del Euskera. En relación con las mismas se plantean dos supuestos a desarrollar:

1. egitekoa

Con el objeto de aumentar en Vitoria-Gasteiz el uso del euskera en tres de los diferentes sectores estratégicos, (Euskaldunización, Ocio y deporte y Transmisión familiar) deberá realizar una breve descripción de cada ámbito, organizados por segmentos de edad, si es pertinente y, exponiendo su situación sociolingüística, realizando propuestas de programas y actuaciones que se deberían o podrían desarrollar o implementar, razonando cada propuesta.

Para la realización de esta prueba se debe basar en propuestas relevantes que se estén llevando a cabo actualmente en el Ayuntamiento de Vitoria - Gasteiz o en otros municipios, comarcas o cuadrillas, otras instituciones así como propuestas propias nuevas.

Para ello, en el contexto de esta prueba y como técnico/a responsable,

1.1.- Describa los programas que crea estratégicos para aumentar el uso de euskera, desglosando acciones concretas a desarrollar, teniendo en cuenta que las mismas empiezan en enero y terminan en diciembre (un año). A las acciones incorpore aquellas consideraciones, aspectos o procesos importantes a tener en cuenta para su ejecución. La valoración tendrá en cuenta la globalidad de las tres propuestas, coherencia del proceso y su desarrollo así como la credibilidad de las acciones propuestas de cara a conseguir el objetivo de los mismos. (7 puntos)

1.2.- Elabore una relación de los recursos organizativos y personales necesarios que deben procurarse para poder llevar a cabo las propuestas mencionadas, así como una descripción lo más real posible de agentes colaboradoras necesarias para llevar a cabo lo expuesto en cada sector estratégico. (3)

1.3.- Defina de forma esquemática un pliego técnico para una de las contrataciones que se lleve a cabo (en el ámbito del Ocio y/o Deporte) por un valor de 24.000 euros. (4 puntos). El pliego se ha de presentar en las dos lenguas oficiales: euskera y castellano. (2)

1.4.- Detalle la participación posible (universo) del sector así como la activación prevista en cada propuesta diferenciada por género.(2)

2. egitekoa

Vitoria-Gasteizko Udalak 2018-2022 VI.plangintzaldirako jarri diren derrigortasun data berrien eraginez, bete beharreko derrigortasun-daten indize berria %38koa da eta dagoeneko eginda dago lan hori.

Erabilera Plan honetan jasota dauden hainbat helburu lortze aldera, hainbat proposamen garatzeko eskatzen zaizu, euskararen presentzia eta erabilera areagotu dadin bai langileen zerbitzu hizkuntzan bai lan hizkuntzan ataletan eragiteko,

Horretarako, Erabilera planean jasota dauden helburuak betetze aldera Gasteizko Udalak gaur egun abian dauzkan proposamen nabarmenenak aipa ditzakezu, edota beste udaletan, Kuadrillatan edo beste erakunderen batean ere aplikatzen ari direnak. Bide berriak ere proposatzeko aukera ematen zaizu, baloratuak izango diren neurrian

2.1.- Udalaren erabilera planean, ZERBITZU HIZKUNTZA atalean jasota dator helburu orokor modura hurrengoa: *“herritarren hizkuntza eskubideak erabat bermatzea; horretarako, euskararen presentzia eta erabilera indartuko da herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan”*.

Proposa itzazu lau ekintza, programa edo prozedura aipatu helburua betetze aldera **Erakundearen irudiari** eta **Herritarrekiko harremanei** dagokienez, Deskribapen zehatza eta helburua betetzeko egokiera baloratuko da. (8 puntu)

2.2.- Erabilera planean agertzen den LAN HIZKUNTZA atalean jasota dator helburu orokor modura euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan. Helburu nagusien artean ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea dugu.

Proposa itzazu hiru ekintza, programa edo prozedura aipatu helburua betetze aldera **Barne harremanei** dagokionez. Deskribapen zehatza eta helburua betetzeko egokiera baloratuko da (6 puntu)

2.3.- Bide berriak ere proposatzeko aukera eman zaizu, baloratuak izango diren neurrian. Hala diren kasuetan adierazi berriak direla. (2 puntu)